# Txostena 2011

EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI



www.ongdeuskadi.org

# Aurkibidea




| | | |
|---|---|---|
| **1.** | Aurkezpena | 3 |
| **2.** | Nortzuk gara? | 6 |
| | Misioa | 7 |
| | Baloreak | 7 |
| | Barne antolaketa | 8 |
| **3.** | Gure ekimenak | 9 |
| | Jokabide kodearen jarraipen batzordea | 9 |
| | Eragin politikoa | 10 |
| | Giza mobilizazioa eta kanpainak | 12 |
| | Generoa | 14 |
| | Komunikazioa | 16 |
| | Idazkaritza teknikoak: | 18 |
| | Euskadi | 18 |
| | Araba, Bizkaia y Gipuzkoa | 19 |
| **4.** | Koordinakundeko Kideak | 26 |
| | Gobernu batzordea | 26 |
| | Lan-taldeak | 26 |
| | Erakundeetan partaidetza | 27 |
| | Talde teknikoa | 27 |
| | GGKEak | 28 |
| | Lankideak | 28 |
| **5.** | Kontu argiak | 29 |

# 1 Aurkezpena

**2011. urtea krisialdi** global sistemiko batek astindutako urtea izan da, eta krisialdi horren zigorrak gogor kolpatu du -beste esparru eta sektore asko bezala- nazioarteko lankidetzaren arloa ere. Gizarte zibilaren elkartasun mugimenduak argi eskatu zuen aurrekontuen %0,7 mundu mailako garapen iraunkorra ahalbidetzeko ekimenetara bideratzea. Eraso gogorrak egin zaizkie eskaera horren eraginez 90eko hamarkadaz geroztik martxan jarrita zeuden lankidetza politika publikoei, arriskuan jartzeraino hainbat garapen-proiektu herrialde pobretuetako osasun, emakumeen jabekuntza, hezkuntza edo janari arloetan. Arriskuan jarri dira, baita ere, nazioarteko justizia, giza eskubideak eta genero ekitatea defendatzeko konpromisoa hiritarrengan sustatzera bideratutako hezkuntza ekimenak.

Estatuko beste leku batzuetako egoera larriraino iritsi ez bagara ere, hainbeste urtez kalitatezko lankidetza politiken erreferentea izan den Euskadi honetan ere lankidetzako aurrekontuak murrizten ari dira (Arabako Foru Aldundia da horren adibide larriena). Horrelako joeren aurrean erne egon beharra daukagu, segurtatzeko konpromiso gabezia hori salbuespen bat baino ez dela izango Euskadiko lankidetza publikoaren ibilbide oparoan.

Egoera ezinago kezkagarri horretan murgilduta gaudelarik, beraz, 2011ko urte honetan aurrera jarraitu dugu iaz hasi genuen eztabaida eta hausnarketa prozesuarekin, argitu nahian zer paper jokatu behar duen Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bere ingurunean eta bere erakunde kideen artean eta, baita ere, zer eredu aukeratu behar duen gure antolakundeak ziklo berri honi aurre egiteko, ahaztu gabe gaur egungo plangintzako konpromisoak eta ekintzak. Aldaketa sakoneko testuinguru honetan beharrezkoa zaigu argi eta zehatz jakitea non gauden eta, batez ere, norantz goazen.

## Eragin politikoa

Eragin politikoaren ikuspegitik azpimarragarria da ordezkari politikoekin darabilgun etengabeko eta aldizkako solasa, aktiboki parte hartzen dugularik lankidetza arloko legeak eta tresnak prestatzeko prozesuetan eta hainbat hausnarketa-gune partekatutan, esaterako, udaletako eta Euskadiko lankidetza kontseiluetan.

Argitara eman dugu aurten Euskal lankidetza publikoaren azterketa 2008-2010; lankidetza deszentralizatuari begirada bat izeneko lana, jakiteko zein izan den euskal erakundeen bilakaera lankidetza arloan, gogoeta egiteko bilakaera horren ondorioez, eta etorkizunerako giltza batzuk eskaintzeko lankidetza arloan lan egiten duten GGKEei eta erakunde publikoei.

Era berean, proposamen integralak, koordinatuak eta koherenteak ematen jarraitu dugu, eta eredu dokumentuaren kapitulu berrien bitartez hausnarketa bateratuak bultzatu ditugu gardentasunaz, kontu emateaz eta politika publikoen koherentziaz.



# 1. Aurkezpena

## Aldaketa soziala

Ereduak eta egiturak aldaraziko dituzten gizarte aldaketak bultzatzeko lanari tinko eutsiz, defendatzen jarraitu dugu bai sareko lana eta bai beste eragile, entitate eta gizarte mugimenduekiko hitzarmenak. Aspalditik datozen beste hainbat ekintza eta jarduerez gain (arrazakeriaren aurkako ibilaldia, Zero Pobrezia kanpaina, Mewando Palestinarekiko elkartasun plataforma, martxoak 8a ...), gizarte antolakundeekin batera Desazkundea eta Bizitza Onaren I. Jardunaldietan parte hartu dugu izenburu iradokitzaile batekin: Alternatibak irudikatzen, eta arrakasta handia lortu dugu harrera eta parte-hartzearen aldetik. Erronka, hausnarketa eta aliantza berriak gizarte aldaketa premiazko eta ezinbesteko batentzat.

Bestalde, sentsibilizazio eta komunikazio estrategia bat presatzen hasi gara, modu erraz eta pedagogikoan azaltzeko zein diren sistema neoliberal patriarkalaren eragin nagusiak hala mundu mailan nola maila lokalean, eta ezagutzera emateko sistema horren arduradunak. Horrela, modu kritikoan ezagutarazi nahi ditugu Ipar-Hegoaren arteko ezberdintasunen arrazoi eta ondorioak, bai eta gure gizarteetako janari banaketaren ezberdintasunak.

Beste urtebetez ere presentzia sendoa izan dugu hedabideetan hainbat tresnaren bitartez. Komunikazio guneak sortu ditugu GGKEen ekintzak gauzatu eta koordinatzeko, hala nola buletin digitala edo web orria, areago sendotuz kontu emate eta gardentasunaren aldeko gure politika. Horri dagokionez, apustu egiten jarraitu dugu sare sozialen eta teknologia berrien alde eta, helburu hori gogoan, mantendu egin ditugu blog tematikoak, Facebookeko eta Flicker-eko partaidetza eta lehen urratsak eman ditugu Twiterren.

## Koordinakundearen hobekuntza

Generoaren atalean, kanpo proiekzio garrantzitsu eta gero eta handiago bat izateaz gain, eta lankidetza politika eta tresnentzako ekarpenak egiteko eztabaidak eta hausnarketak bultzatzeaz gain, aurrerapausoak eman dira genero politikaren esparruan, helburutzat harturik genero ekitatea segurtatzea hala gure eguneroko lanean nola gure barne funtzionamenduan, erreferentzia bihurtu garelarik GGKE kideentzat ekitatearen alde hartua duten konpromisoan.





# 1 Aurkezpena

Kide diren GGKEak indartzea eta laguntzea bihurtu da gure lanaren ardatza eta koordinazio eta prestakuntza guneak sortu dira aholkularitza profesionaleko zerbitzuekin. Martxan jarri dira, baita ere, hainbat gairi buruzko eztabaida prozesuak (tamaina txikiko entitateak, gizarte oinarria, parte-hartzea...).

Garapenerako hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako katalogoa prestatu da eta bertan jaso dira Euskadiko GGKEen jarduerak, materialak, ekintzak... Apustu berri bat da garapenerako hezkuntzaren alde, hezkuntza horretan bi helburutara bideratutako prozesu zabal bat ikusten dugularik: munduko errealitateari buruzko kontzientzia kritikoa piztea eta justizian eta elkartasunean oinarritutako aldaketa eta parte-hartze tresnak sortzea.

Bereziki aipagarria da Gipuzkoan eta Araban egiten ari den lan jarraikia deszentralizazioa bultzatzeko, GGKE ezberdinen arteko koordinazioa sustatzeko, GGKEek herrialdeetan egiten duten lana eta daukaten presentzia ikusarazteko, eta abiatu dituzten hausnarketa prozesu aberasgarriak plazaratzeko, ahaztu gabe noski kanpora begira egiten den funtsezko lana.

Zalantzarik gabe, testuinguru aldakor batean gaude, eskubide murrizketa gehiago ekarriko dituena eta guri bi gauza eskatuko dizkiguna: hausnarketa egitea eta ekintzari lotzea. Barrura begira, gure antolaera zehazteko eta bide onena aukeratzeko erronka berriei erantzun ahal izateko; eta kanpora begira, Euskadin orain arte egin den bezalako politika publiko sozial eta solidarioen alde apustu egiteko, mundua kolpatzen duten eta jendea sufrimenduaren mende mantentzen dituzten desberdintasunak eta garapen molde jasanezinak ezabatzeko politikak alegia. Gure ustea da, lehen bezala orain ere, elkartasunaren alde egitea ez dela soilik egin daitekeen gauza justuena, baina baita ere ezinbesteko lana mundu honetako pobrezia eta ezberdintasunen aurka borrokatzeko. •

Ana María Arriola

Euskadiko garapenerako GKEen Koordinakundeko lehendakaria





# 2. Nortzuk gara?




ahotsa

www.ongdeuskadi.org — 63. zenbakia • 2011

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA • COORDINADORA de ONGD EUSKADI

¿Quieres colaborar con el Sur?
Cómo conocernos y participar

Que más de 1.000 millones de personas en el mundo vivan con menos de un euro al día nos indica que algo falla. Que el 20% de la población mundial consuma el 75% de la energía global es un dato que no puede dejarnos indiferentes. Estas situaciones de desigualdad deben hacernos tomar conciencia del estado del mundo y movilizarnos y alzar la voz para poder construir un futuro y un mundo más justo y solidario. En nuestras manos hay muchas más cosas de las que creemos para colaborar con los países empobrecidos y empezar a cambiar estas situaciones de injusticia. Informarnos es el primer paso, y para ello, en este número de la revista Ahotsa damos a conocer algunas propuestas e iniciativas para acercarnos a las realidades del Sur a través de las ONG de Desarrollo.

Con motivo de las elecciones municipales del 22 de mayo la Coordinadora de ONG de Desarrollo de Euskadi puso en marcha la campaña *Elige las personas primero, la crisis no es la excusa* con el fin de recordar a la ciudadanía que en un contexto de crisis como el actual es necesario apostar por aquellas políticas solidarias que tengan a las personas como principal objetivo y no cualquier otro tipo de intereses. En este número conoceremos los contenidos de esta campaña.

Además, en estas páginas, y de la mano de Jolas eta Ekin, profundizaremos en el derecho a la educación y comprobaremos que la actual crisis está afectando al estado de este. Comprobaremos también que garantizar el acceso de mujeres y niñas a la educación es uno de los retos para lograr la consecución de este derecho fundamental.

En otro orden de asuntos, en el interior conoceremos también el trabajo que la ONGD Ayuda en Acción-Ekintza Lagundu lleva a cabo en el ámbito de la cooperación internacional.

Finalmente, en este ejemplar podremos comprobar también una de las opciones que el ámbito universitario ofrece para poder acercarnos al Sur para descubrir sus distintas realidades. Conoceremos la historia de Toño Sanda, alumno de la Escuela de Ingeniería de Bilbao que llevó a cabo su proyecto de fin de carrera en El Salvador junto a una ONGD. Una experiencia de cooperación universitaria al desarrollo que le ha confirmado sus planteamientos por querer trabajar a favor de un desarrollo humano sostenible.

**Euskadiko Garapenerako GGKE**en Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren garapenerako GKEen (GGKE) jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko, eta horrek berekin dakar elkarren artean, hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea. Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2011aren amaieran 82 GGKE ditu eta 140 egoitza baino gehiago Euskadiko lurraldeetan. Urte hauetako esperientziaren ondorioz, Koordinakundearen lehentasunezko helburu batzuk adostu ditugu guztion artean:

- Kide diren GGKEen arteko koordinazioa hobestea, garapenerako nazioarteko lankidetza areagotzeko, erakundeen arteko ekintza bateratuak gauzatuz;
- Sustatzen ari garen lankidetza ereduaren hausnarketarako espazio erkidea sortzea, Iparralde/Hegoaldean dauden harreman desberdinak aldatzeko;
- Euskal gizartea Hegoaldeko herrialdeen errealitatearekiko sentsibilizatu, kontzientziatu eta prestatu;
- Tolerantzia eta elkartasuna bultzatu herri eta kulturen artean;
- Jendaurrean azaldu GGKEek eginiko lana.



# 2. Nortzuk gara?



## Misioa

Koordinakundea garapen lanetan diharduten GKEez osaturiko kolektibo bat da. GGKE hauek jokabide kode amankomun bati atxikitzea erabaki dute eta horrela egitura antolatu bat osatu dute lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetan lan egiteko, genero berdintasunean oinarritutako giza garapen iraunkorraren paradigmari jarraituz. Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetza sustatzea, euskal erakunde publiko zein pribatuen artean eta Koordinakundeko kide diren erakundeen artean.
- Koordinakundeko kide diren erakundeen prozesuei laguntzea, dauzkaten gaitasun politiko zein teknikoak indartuz.
- Gure inguruneko eraldaketa soziala bultzatzea, herritarren artean elkartasunaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziarekin eta Iparra-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.

Hori guztia aurrera eraman nahian, Koordinakundean topaketa, eztabaida eta gogoeta espazioak eskaintzen ditugu kide diren erakundeek irizpide komunak sor ditzaten. Eragina izaten ahalegintzen gara politikoki eta sozialki, aliantzak egiten ditugu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko esanguratsua izaten saiatzen gara. Horrekin batera, erakundeei laguntzen diegu beren lanean, dauzkaten gaitasunak indartzen ditugu, beren arteko aliantzak bideratzen ditugu eta kolektiboaren esku jartzen ditugu kide bakoitzak daukan baliabideak, eta alderantziz.

## Baloreak

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen lana eraldaketa sozialaren esparruan kokatzen da, desberdintasunak gainditu eta mundu justuago baten alde borroka eginez. Mundu osoko beste hainbat talde sozialek bezala, geurea egin dugu beste mundu bat posible da leloa. Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzak oinarritzat dauzka elkartasuna, desinteresa eta dohaintasuna; garapenerako lankidetza ez da transferentzia ekonomiko hutsa, herri pobretuekin lan egiten da giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzeko, hezkuntza lortzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko eta ohartarazteko badirela hori guztia eragozten duten hainbat mekanismo. Koordinakundeak, halaber, kide diren erakundeen ekintzak zuzentzen dituzten baloreak islatzen ditu. Garrantzi berezia ematen diogu demokrazia parte-hartzailea, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero berdintasuna lantzeari.






# 2. Nortzuk gara?

## Barne antolaketa

Eskadiko GGKEen Koordinakundearen organo nagusia batzorde orokorra da. Urteko oinarrizko irizpide eta jarduera ildoak zehazteko batzen da. Bestalde, batzorde orokorrean hautatzen dira instantzietako ordezkari izango diren karguak.

Batzar nagusia gutxienez urtean behin biltzen denez, gobernu batzarra da Koordinakundearen organo betearazlea. Koordinakundearen jarduerak programatzen eta zuzentzen ditu, batzar nagusiak eta haren plan estrategikoak xedatutakoari jarraituz. Lurraldeko batzarrak, Koordinakundearen ordezkaritza horretan elkartutako GGKEek osatzen dituztenak, lurralde ordezkaritzen gobernu organoak dira. Gainera, lurralde bakoitzean lantaldeak oinarri hartuta egiten da lan. Onginahi hutsez lan egiten duten hainbat GGKEtako kideek osatzen dituzte eta talde txikiak izaten dira. Gaur egun, arlo hauetan egiten dute lan:

- Eragin politikoa.
- Giza mobilizazioa eta kanpainak.
- Generoa.
- Komunikazioa.


Erdiz erdi
Instituzioen garapenerako lankidetza
Garapenerako lankidetzara bideratutako aurrekontua izoztu edo murriztu dute administrazio nagusiek 2009tik, eta GKEek gogorarazi dute ez direla betetzen ari pobretutako herrialdeekin duten «zor historikoaren» inguruan hitzartutako konpromisoak.
# Elkartasun ofiziala, krisian



Idazkaritza teknikoak, herrialde bakoitzeko bat, gobernu batzarrak eta batzar nagusiak haien esku uzten dituzten erabakiak gauzatzeko ardura duten organoa dira. Gainera, GGKEei eta herritarrei zerbitzuak eskeintzen dizkiete. Halaber, bada jokabide kodearen segimendurako batzordea, kide diren GGKEek kodearen segimendua bermatzen duena, kodea zabal eta ezagut dadin bultzatzen duena eta honen aplikazioaren inguruan aholkuak ematen dituena.

2001az geroztik, Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundearen barruan gaude. 2009an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak Euskadiko GGKEen Koordinakundeari eman zion Ignacio Ellacuria saria, garapenerako lankidetzaren esparruan egindako ibilbideagatik. Hogei urteko lanagatik eta garapenarekin zein aldaketa sozialarekin hartutako konpromisoagatik emandako esker ona izan zen hau. •

# Jokabide kodearen jarraipen batzordea

**Jokabide kodearen** jarraipen batzordean lanean jardun dugu kodearen hedapena eta ezagutza sustatzeko, erakunde kideen artean kodearen betepena bultzatzeko, kide diren GGKE horiek kodea betetzen dutela egiaztatzeko, interpretatzeko eta erakundeei bere aplikazioaren inguruan aholkatzeko.

Batzordearen zeregin nagusia izan da Euskadiko GGKEen Koordinakundean sartzea eskatu duten erakundeen dokumentazioa gainbegiratzea, erakunde horiek baloratzeko txosten bat egitea eta txosten hori gobernu batzordeari eta batzar orokorrari igortzea. Hauexek izan dira batzordeak baloratutako GGKEak: Pausu media, Sociedad de Cuidados Paliativos, Prokarde, Garabide eta Mundubakean. Batzordeak gomendatu du Garabide eta Mundubakean erakundeek Koordinakundean parte har dezatela sei hilabetez.





Bestalde, jokabide kodearen jarraipen batzordean jokabide kodeari buruzko prestakuntza jardunaldi batean parte hartu dugu: *Dilemas del código de conducta ante la crisis*. Jardunaldia Madrilen egin zen eta era askotako gaiak landu ziren, hala nola giza baliabideak eta enpresekiko harremana. Azkenik, batzordea bera indartu dugu, datozen urteetan egingo dugun lanari begira. •

# Eragin politikoa

**2011n zehar** eragin politikoa arloan harreman egonkorrak izan ditugu Euskadiko lankidetza politikak diseinatzeko ardura duten eragileekin eta baita ere komunitatean ordezkaritza duten alderdi politiko nagusiekin eta beste erakunde batzuekin, hala nola Euskal Fondoarekin.

Aldizkako bilerak egin ditugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta ordezkaritza egonkorra izan dugu Lankidetzarako Euskal Kontseiluan. Bi espazio horietan aurkeztu ditugu erakunde honen araudiarekiko posizionamenduak eta ekarpenak. Halaber, Lankidetzako Euskal Legearen jarraipena egin dugu, betetze gradua eta epe labur-ertainean izango duen etorkizuna aztertzeko. Aipatzekoa da, bestalde, Agentzia horrekin garatutako hiru prozesu zehatzetan izan dugun parte-hartzea: lankidetza tresnen berrikuspena, 2008-2011 Plan Zuzentzailearen ebaluaketa eta hurrengoaren egitea.

Lankidetza politika publikoen jarraipenari dagokionez, Euskal Lankidetza Publikoa 2008-2010 azterlana egitea izan da gure zeregin garrantzitsuenetako bat. Baita ere aztertu dugu zein izan den krisi ekonomikoaren testuinguruan erakundeetako aurrekontuek izan duten bilakaera.

Eredu dokumentuari buruz, hots, Koordinakundeak eragin politikoko lanarekin lotutako gaien inguruan dituen posizionamenduak eta oinarrizko printzipioak jasotzen dituen agiriari buruz, esan behar da Gardentasun eta kontu-emate




proposamen bat euskal lankidetzara publikorako kapitulua egin dugula eta, bestalde, Garapenerako politika publikoen koherentzia izeneko atala aurkeztu dugu hainbat lankidetza espazio eta kontseilutan.

Udal eta foru hauteskundeen harira, Pobreziaren aurkako Ituna sinatzeko proposamena igorri diegu alderdi politikoetako exekutibei. Hauteskunde orokorrei begira, mahai-inguru bat antolatu dugu Bilbon EAEko erakundeetan ordezkaritza duten alderdi politikoekin Elkartasuna krisi garaian; euskal lankidetza eztabaidagai izenburupean. Mahai-inguru horretan arlo honetarako dituzten proposamenak eztabaidatu dira.



Jueves, 9 de junio de 2011 Deia

Tribuna Abierta

## La Cooperación al Desarrollo desde el ámbito local

POR **NATALIA RODRÍGUEZ (*)**

LA cooperación descentralizada es la parte de la Ayuda Oficial al Desarrollo (AOD) que se canaliza desde los gobiernos de las comunidades autónomas, diputaciones y ayuntamientos hacia los países empobrecidos. Esta modalidad de cooperación surge en el Estado español en los años 90 gracias al papel primordial de la sociedad civil al reivindicar que el gobierno destinara el 0,7% de su Producto Interior Bruto a la solidaridad internacional. Es a partir de ese momento cuando la ciudadanía reclama a sus gobiernos locales y autonómicos mayor solidaridad y responsabilidad.

Son numerosas las virtudes de las políticas solidarias locales: son cercanas a la ciudadanía, sensibles a sus intereses, fomentan la participación en la construcción de políticas públicas, son más autónomas respecto al conjunto de la cooperación al desarrollo realizada desde el gobierno central, es más fácil que generen espacios de coordinación en red con otros actores locales o redes y, además, contribuyen a generar una ciudadanía activa, concienciada y movilizada que contempla la solidaridad como una responsabilidad compartida. Pero bajo nuestro punto de vista su auténtico valor añadido es el papel primordial de la sociedad civil en la reivindicación, definición e incluso gestión de la cooperación.

Esta reflexión es hoy más necesaria que nunca dado al contexto de crisis económica. La caída de los presupuestos de la AOD de las comunidades autónomas ha sido alarmante salvo en dos casos: Euskadi, que mantiene su presupuesto, y Castilla la Mancha, que lo incrementa. En conjunto, la AOD autonómica ha descendido un 12%, mientras que los presupuestos autonómicos han registrado una caída del 4%. La ayuda que las instituciones locales presupuestan a través de las convocatorias de subvenciones se canaliza en su mayor parte a través de las ONG de desarrollo (ONGD), que a su vez trabajan con organizaciones locales de los países del sur con el fin de erradicar la pobreza. Esto hace que la ayuda llegue a muchos lugares y a poblaciones donde la acción gubernamental por sí sola no alcanza.

Otra de las modalidades que las administraciones públicas han desarrollado es la cooperación directa, con la cual las instituciones canalizan directamente la ayuda hacia determinadas instituciones o municipalidades del sur, normalmente a través de transferencias económicas o técnicas directas. De esta forma, las administraciones locales pueden transmitir su experiencia a los países en vías de desarrollo en áreas de vital importancia como los procesos de descentralización, la gobernanza local, el urbanismo o medioambiente, entre otras.

### *Riesgos de la cooperación directa*

Esta modalidad se está impulsando cada vez más y ante esta tendencia, desde la Coordinadora de ONGD de Euskadi entendemos que tiene una lectura positiva si se aprovecha el conocimiento acumulado y las capacidades creadas en ámbitos de gestión específicos. No obstante, la cooperación directa tiene algunos riesgos importantes como la tentación de reproducir a pequeña escala el modelo estatal de cooperación, el riesgo de que se actúe de manera independiente, es decir, que esté orientada a prioridades políticas del norte sin conexión con el resto de la cooperación gestionada por las ONGD, así como la falta de transparencia y de control.

Por si fuera poco, la cooperación desarrollada por las ONGD ha sido muy estudiada, analizada y en ocasiones también criticada, pero la cooperación directa en los entes locales tiene poca trayectoria y existe aún una escasa cultura de rendición de cuentas sobre qué, cómo, cuánto y dónde se trabaja. Por ello, consideramos que es importante a su vez que esta forma de hacer cooperación al desarrollo se limite en cuanto a cantidad destinada y que se gestione de la forma más transparente posible, evitan-

# 3. Gure ekimenak

Bestalde, Pobretutako herriekiko Justizia eta Elkartasun Gutuna betetzen ote den jarraitzen duen taldean parte hartu dugu eta eragin politikoko ekintzak garatu ditugu. Bi iritzi artikulu argitaratu ditugu prentsan: Tokiko erakundeetatik egiten den garapenerako lankidetza eta Urtebete Pobreziaren aurkako Ituna bete gabe.

Lurraldeka, etengabeko elkarrizketa mantendu dugu lankidetzako udal eta foru arduradunekin –alderdi politikoak barne- eta hainbat ekintza garatu ditugu. Araban presentzia izan dugu Gasteizko Lankidetza Kontseiluan eta jarraipena egin diogu bere agendari. Eragin politikoko hainbat ekintza egin ditugu Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak garapenerako lankidetzan egindako murrizketak saihesteko, esaterako herritarren txanda eskatu dugu udal osoko bilkuran eta salatzeko prentsaurreko bat antolatu dugu.

Bizkaian presentzia izan dugu Bilboko Lankidetza Kontseiluan, jarraipena egin diogu bere agendari eta gainera funtzionamendua ebaluatzeko proposamen bat egin dugu. Era berean, ekarpenak egin dizkiegu Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza deialdietako oinarriei.

Gipuzkoan Donostiako Lankidetza Kontseiluko ordezkaritza mantendu dugu, jarraipena egin diogu bere agendari, honen funtzionamendua ebaluatu dugu eta honen ebaluaketa organoari berari igorri diogu, bertan eztabaidatuz. Aipatzekoa da baita ere, Donostiako Udalarekin batera, jarraipen lana egin dugula 2010ean sinatutako Pobreziaren aurkako Ituna betetzen den egiaztatzeko. Era berean, eragin politikoko jarduerak egin ditugu Gipuzkoako erakundeen oinarrietan 794 E.D. aplikatu dadin eta hainbat ekarpen egin dizkiegu Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza deialdietako oinarriei.

Estatu mailan Espainiako garapenerako GKEen Koordinakundearen koordinakunde autonomikoen taldean egon gara eta Bartzelonan egindako koordinakunde autonomikoen topaketan parte hartu dugu. •







# Gure ekimenak

## Giza mobilizazioa eta kanpainak

**Giza mobilizazio** eta kanpainen lantaldetik ahalegina egiten dugu gure inguruko eraldaketa soziala bultzatzeko, elkartasunezko kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia eragiten dituzten egiturak aldaraziz eta garapen ereduari buruzko eztabaida eta parte-hartzea bideratuz.

Horretarako, guretzat funtsezkoak diren aliantzetan oinarriturik, urtean zehar hainbat gogoeta sustatu ditugu beste eragile eta mugimendu batzuekiko harremanen inguruan, aldaketa soziala eragiteko. Era berean, hainbat sare eta plataformak sustatutako ekimenetan parte hartu dugu: Zero Pobrezia, REAS, EAPN, Guatemala, Sahara, murrizketa sozialak, Palestina, ILP, 15M, Ekologistak Martxan, EGK...

Zentzu horretan, aipatzekoak dira Mundu zabala, errealitate anitz sentsibilizazio jardunaldiaren bederatzigarren edizioan mamitutako aliantzak, lortu dugulako beste eragile eta erakunde batzuk inplikatzea eta aliantza edo harreman horiek egonkortzea: FIARE, Donostiako Zero Pobrezia Plataforma, Mujeres del Mundo, SOS Arrazakeria, Debagoienako GGKEak... Aurten berriro parte hartu dugu Donostiako arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako XIV. martxan, beste kolektibo eta eragile sozial batzuekin batera.

Giza mobilizazio eta kanpainak lantaldeak ahaleginak batzea eta Koordinakundeko erakunde kide guztiak eta beren aldarrikapenak indartzea izan du helburu, GGKEek egiten duten lana babestuz eta aktiboki parte hartuz kideetako bakoitzak bultzatzen dituen kanpaina eta ekintzetan: bakarrik dauden gazte atzerritarrak; ILP; Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina; Bidezko merkataritza; Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) egindako lana babestea; GGKEen prozesuak babestea (esaterako, elikadura subiranotasunari eta generoari buruzko zinema erakustaldia); Giza Eskubideen Zinemaldia; Munduko Arrozak; Desazkundea jardunaldiak... horrez gain, Koordinakundeak aktiboki hedatu ditu hainbat GGKEk Palestinarekiko elkartasunez antolatzen duten Boikot, Desinbertsio eta Zigor (BDS) kanpainaren inguruko informazioak eta ekintzak eta aktiboki parte hartu du beste eragile eta mugimendu sozial batzuekin batera antolatutako ekintzetan.

Aurten Alternatibak irudikatzen: Desazkundea eta Bizitze Ona jardunaldiak antolatu ditugu Bilbon, beste kolektibo eta erakunde batzuekin batera (Mugarik Gabe, Ekologistak Martxan, Desazkundea, REAS, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza eta Bakea eta Duintasuna). Ekitaldi horretan, izenburuan bertan adierazitako kontzeptuak sakontzeaz gain, bi ikuspegi horiei buruz hausnartu eta eztabaidatu dugu eta aliantzak bilatu ere bai hizlarien eta 200 parte-hartzaileen artean.






# 3. Gure ekimenak

Era berean, Koordinakundeak zuzendutako giza mobilizazioko ekintzak antolatu ditugu; erakundeak aktiboki inplikatu dira eta beste eragile sozial batzuek ere bat egin dute. Horrela, Zero Pobrezia kanpaina babesten jarraitu dugu: sakon landu ditugu eduki eta ikuspegi berriak (desazkundea eta bizitze ona) Koordinakundeko barne eztabaida eta hausnarketarako elementu gisa, eduki berriak, ekintzak edota beste kolektibo eta eragile sozial batzuekiko harremanak eta sareak sortzeko.

Beste batzuetan bezala, aurten ere sentsibilizazio eta salaketa ekintza ugari egin ditugu kalean eta ez ditugu ahaztu prestakuntza eta hausnarketa; helburu horiekin antolatu ditugu hitzaldiak, zine-forumak, material banaketak, tailerrak, topaketak… Azpimarratu nahi dugu sare sozialen alde egin dugun apustua eta baita ere GGKEen parte-hartzea sustatzeko egin ditugun jarduerak, ziber-ekintzen bidez edo bestelako ekintza berritzaileen bidez (esaterako, hiru lurraldeentzako bideo bateratua egitea).

Parte-hartzeari buruzko gogoeta prozesuarekin jarraitu dugu, besteak beste aztertzeko zergatik duten hain inplikazio baxua oinarri sozialek, esaterako, zergatik jaitsi den boluntario kopurua. Prestakuntza jarduerak eta eztabaidak antolatu ditugu, zailtasunak, erronkak eta ikasitakoak partekatzeko eta ideiak trukatzeko, eta koordinazio, gogoeta eta ekintza bateratuko espazioak sortu ditugu horretarako.

Azkenik, gainerako arloekin koordinatutako jarduerei dagokienez, bereziki garrantzitsua izan den bat azpimarratu behar da. Giza mobilizazio eta kanpainen taldean, genero eta komunikazio arloekin batera, sentsibilizazio eta komunikazio estrategia bat garatu dugu, zeinaren helburua baita gizarteari pobreziaren eta desberdintasunen arrazoiak ikusaraztea. 2011n GGKEekin lanean jardun dugu 2012an martxan jarriko dugun kanpainaren edukiak eta oinarriak finkatzeko. •






# Generoa

**Genero arloak** 2011. urtean zehar egin dituen jarduerei dagokienez, bi aipatu nahi ditugu bereziki, Koordinakundean izan duten garrantziagatik eta lantaldea bera indartu izanagatik.




Lehenengoa, Koordinakundearen barneko genero politikarekin lotuta dago. 2010ean onartu zen politika horrek oinarritzat duen genero diagnostikoa. Lantaldean hainbat denbora igaro genuen eztabaidan eta lanean eta, azkenik, politikaren zirriborroa egin genuen, eta hura aurkeztu, eztabaidatu eta Koordinakundeko lan espazio guztietako ekarpenak jaso genituen. Genero politikaren zirriborroari ekarpenak egiteko prozesua gobernu batzordeak emandako hasierako onespenarekin hasi zen, gero 3 lurralde batzordeetan aurkeztu zen, ondoren lantaldeetan eta azkenik lantalde teknikoan. Prozesu hori iragan ostean, hasierako zirriborroa aberastu egin da, eta emaitza bezala Koordinakunde osoak egindako testu eztabaidatu eta bateratua lortu dugu, bozketaren zain dagoena, 2012an onartua izan dadin.

Azpimarratu nahi dugun bigarren jarduera da genero taldeak antolatutako Genero ikuspegidun nazioarteko lankidetza politika publikoak krisi garaian jardunaldia. 2 egunez Koordinakundeko hainbat GGKEk eta Estatuko eta Autonomietako Genero Taldeen Sareko (GGEA) zenbait kidek eztabaidan jardun genuen krisi ekonomikoak lankidetzaren esparruko genero politikengan duen eraginaren inguruan eta akordio batzuk adostu genituen esparru horretan hartu ziren konpromisoak hutsaldu egin direla salatzeko.



Jardunaldi horietan eginiko gogoeten jarraipen bezala, genero lantaldeak azterketa bat egin du GGKEek genero ikuspegia txertatzeko dituzten instrumentuak hobetuko dituzten proposamenekin, bai erakundeen barnean eta baita proiektuetan ere. Koordinakundeko gobernu batzordeak oniritzia eman dio azterlanari eta orain euskal GGKEen garapenerako lankidetza lana finantzatzen duten erakundeei aurkeztuko diegu.

# 3. Gure ekimenak

Bestalde, genero berdintasunaren arloko eragin politikoko lanekin jarraitu dugu, arlo horrekin koordinatuta. Aurrerapen nabarmena lortu dugu bide horretan, izan ere etengabeko koordinazioa lortu dugu genero taldearen eta Lankidetzaren Euskal Kontseiluan genero berdintasuna bermatzeko arduradunaren artean.

Beste kolektibo batzuekin egin dugun lanari erreparatuz gero, esan behar da Bizkaiko Martxoak 8 (Emakumearen Nazioarteko Eguna) eta Azaroak 25 ( Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna) koordinakunde feministetan parte hartzen jarraitu dugula. Era berean, GGEA sarearekin lan egin dugu etengabeko koordinazioa mantenduz, arreta berezia eskaini diogularik Madrilen 2012an egingo diren *Diálogos consonantes* jardunaldiei, topagune egokia direlako Espainiako lankidetzaren eta Latinoamerikako zein Karibeko erakunde feministen artean akordioak bilatzeko.

2011. urtea bereziki positiboa izan da genero berdintasunaren inguruko prestakuntzari dagokionez. Koordinakundeak berak eskainitako ikastaroez gain, genero arduradunak hitzaldiren bat edo beste eman du hainbat jardunalditan, esaterako, Generoa, maskulinitate berriak eta garapenerako lankidetza (Bilbo); XXI. mendeko India eztabaidagai: giza eskubideei, generoari eta garapenari begira (Donostia); Euskal Gazteria Kooperantea programako prestakuntza (Barria); Krisi garaian, lankidetzako diru gehiago emakumeentzat (Bilbo); Kataluniako Nazioarteko Lankidetza Agentziaren genero zuzentarauen aurkezpen ofiziala (Bartzelona) eta *Ëgalité de genre et coopération au développement. Expériences au Maghreb, Espagne et Amerique Latine* (Rabat). •









# Komunikazioa

**Gure iritziz,** komunikazioa funtsezko motorra da bilatzen dugun aldaketa soziala lortzeko, eta horregatik, hainbat komunikazio ekintza gauzatu ditugu bidegabekeriak salatzeko eta baita ere ezagutzera emateko zeintzuk diren pobrezia eta Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunak sortzen dituzten arrazoiak; hala, elkartasunaren kultura sustatu nahi dugu hiritarren artean, eraldaketa soziala lortzeko.

Komunikabideen bitartez hedatu ditugu lan-taldeek eta Koordinakundearen parte-hartzea duten plataformek antolatutako jarduerak. Aipatzekoak dira albiste, elkarrizketa edo iritzi artikulu ugari argitaratu direla: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Pobreziaren aurkako Astea, Donostian antolatutako Mundu zabala, errealitate anitz jardunaldiak, Sarrikon eginiko Desazkundea eta Bizitze Ona topaketak edo Aukeratu pertsonak lehenengo, krisia ez baita aitzakia kanpaina udal hauteskundeen harira. Azpimarratzekoak dira halaber Mewando sareak sustatutako jarduerei eman zaien babesa*: Rumbo a Gaza, Misión a Palestina* edota martxoak 8an eta azaroak 25ean eginiko mobilizazioak. Bestalde, Koordinakundeak babestu dituen kanpoko kanpaina eta ekimenei buruzko informazioa hedatu dugu: Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina, Harresiak Apurtuz elkarteak etorkinen bozkatzeko eskubidearen alde antolatutako ekimena, Laudioko Azoka Solidarioa, Donostiako arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako XIV. martxa eta Munduko Foro Soziala.

Hainbat komunikazio ekintza egin dira Koordinakundearen posizionamenduak hedatzeko. Besteak beste, aipatzekoak dira Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak lankidetza arloan egindako murrizketen inguruko prentsaurrekoa, prentsa ohar baten bidez Eusko Jaurlaritzak 2011rako aurkeztutako aurrekontuei eginiko balorazioa, Koordinakundea Gasteizko Udal Kontseilutik atera izana edo Tindoufen 3 kooperante bahitu izanaren salaketa. Urtean zehar euskal prentsako hedabide ugaritan argitaratu dira eragin politikoko lantaldeak idatzitako bi iritzi artikuluak.

Gainerako arloekin koordinatuta, hainbat topaketa antolatu ditugu GGKEen eta komunikabideen artean, kazetariekiko harremanak estutzeko eta gai zehatzei buruzko informazioak, tratamenduak eta ikuspegi egokiak bideratzeko. Gipuzkoan topaketa horien ardatza kontsumo arduratsu eta iraunkorra izan da, bereziki Gabonetan, eta desazkundea proposatuz alternatiba bezala. Araban eta Bizkaian pobreziaren aurkako proposamenak eta maila lokaleko alternatibak landu ditugu Pobreziaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira.

Arabako komunikazio taldean lankidetzari buruzko onlineko argazki artxiboa eguneratu dugu, hedabide eta erakundeen eskura dagoena eta lankidetzari buruzko argazki desegokien argitalpena saihestea helburu duena. Bestalde, Arabako irrati taldean bi hilean behin Sintoniza tu Sur-Piztu zure Hegoa programaren 4



20 | Euskal Herria

Iñaki Uribarri, Ananda Abaigar, Ainhoa Oceja y Andrea Aristondo denunciaron los recortes.

**Los colectivos sociales de Araba denuncian recortes en cooperación e inmigración**

Más de ochenta colectivos sociales alaveses denunciaron ayer los «drásticos» recortes decretados por la Diputación, en manos del PP, en todas aquellas partidas económicas ligadas a la cooperación y la inmigración.

Ion SALGADO | GASTEIZ

Los colectivos sociales de Araba y el sindicato ESK denunciaron ayer los «drásticos recortes» decretados por la Diputación, gobernada por el PP, en las partidas económicas vinculadas a la cooperación y a la inmigración. Unas reducciones que dificultarán la labor desempeñada por la Coordinadora de ONGD de la CAV, Harresiak Apurtuz y la Comisión ciudadana anti-Sida en el herrialde.

En una rueda de prensa, Ainhoa Oceja, que representó a los colectivos sociales implicados en la denuncia ante los medios de comunicación, recordó que los recortes sociales impulsados por el Gobierno de Javier De Andrés se han topado de frente con los partidos que componen la oposición en las JJGG de Araba –PNV, Bildu, PSE y EB–.

Dicho rechazo se materializó el pasado mes de octubre, cuando la Cámara legislativa alavesa aprobó, con los votos en contra del PP, una moción en la que se instaba a la Diputación a aprobar la resolución de las convocatorias anuales de cooperación al desarrollo e inmigración y la de asistencia técnica sobre género y cooperación, partida que se ha visto reducida en un 75% desde que se materializó el cambio en el Gobierno foral.

No obstante, tal como recordó Oceja, esta moción «no ha tenido efecto ni respuesta alguna por el momento». «El Gobierno foral ha obviado la petición de estos grupos junteros y, por tanto, ha hecho caso omiso a una gran parte de la sociedad alavesa», criticó.

De cara a los presupuestos del próximo año, las agrupaciones sociales y sindicales miran con temor a las cuentas diseñadas por la Diputación, ya que, tal como indican las previsiones de las que disponen actualmente las organizaciones implicadas, parece que la tendencia de recortes en inmigración y cooperación se mantendrá durante el próximo año.

Según explicó Oceja, el Ejecutivo foral tiene previsto destinar 250.000 euros durante 2012 a las subvenciones de cooperación basadas en la libre concurrencia, un 50% menos; y espera reducir en un 56% la cantidad destinada a la inmigración.

Para tratar de paliar esta situación, la portavoz de las organizaciones realizó un llamamiento a la Diputación para que «abandone la línea de recortes hasta ahora seguida y sea un ejemplo de compromiso con la lucha contra la pobreza y equidad social».



edizio emititu ditugu Ola 19 emisoran, non lankidetzarekin, elkartasunarekin eta GGKEekin lotutako hainbat gai modu kritikoan jorratu ditugu.

Gainera, erakundeei komunikabideetara iristeko bidea errazteko, eguneratu egin ditugu elkartasun eta lankidetza gaiekin lotutako albisteak landu nahi dituzten Euskadiko kazetarien datu baseak eta GGKE kideen artean banatu ditugu. Astean behin konexioak egin ditugu Onda Vasca irratiarekin GGKEen jarduerak ezagutzera emateko eta Ahotsa aldizkariaren hiru ale argitaratu ditugu, non era askotako gaiak jorratu baititugu. Aldizkaria 1.500 hartzaile baino gehiagok jaso dute, hala nola ikastetxeek, unibertsitateek, komunikabideek, gazteentzako informazio guneek, liburutegiek, dokumentazio zentroek edo erakunde publikoek.

Koordinakundearen web orria eta blog tematikoak eguneraturik ere eduki ditugu. Gainera, astero bidali dugu buletin digital bat informazio interesgarriz beteta. Sare sozialetan genuen presentzia zabaldu dugu, lehen bezala Facebooken jarraitzen dugu, baina orain Twitterren parte hartzen hasi gara. Bestalde, Deustuko Unibertsitateak Donostiako komunikazio ikasleei hitzaldi bat eman genien Hegoaldeari dagokionez irudi eta mezuen kodea kazetaritzan nola aplikatu erakusteko. •









Astekoa
Pobreziaren Kontrako Astea
275
«Benetako ekonomiaren alde» agertu da Larrañaga
Munduko aberatsen %10, aberastasun gehienaren jabe
Benetako irtenbideen bila
Alternatibak eta kontsumo ohitura berriak proposatu dituzte Arabako eragileek «gizarte justuago bat lortzeko»
Laguntzak jasotzeko «oztopoak» salatu dituzte babesgabetasun egoeran daudenek
Hainbat sektoretan emakumeek egoera «are zailagoa» dutela gogorarazi dute
Aste barruan izandako jardueren artean, azoka solidarioa antolatu zuten atzo Laudion



# Idazkaritza teknikoak

## Euskadi

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko zuzendaritzan arreta berezia eskaini diegu batzar orokorretan eta gobernu batzordean hartutako erabakien jarraipen eta garapenari, Plan Estrategikotik irtetzen direlako. Gobernu batzordeari lagundu diogu bilerak, gai-ordenak, aktak nahiz dokumentuak prestatzen eta egin dugu baita ere ordezkaritzetarako eta lan eremuetarako Urteko Plangintza Operatiborako dokumentua. Jada igorri diegu plangintza hori gobernu batzordeari eta batzarrei, onartu eta gauzatu dezaten.

Proiektuen kudeaketaren arloan Koordinakundea finantzatzen duten erakundeekin sinatutako hitzarmenen jarraipena egin dugu, bereziki Bizkaikoenak. Beraz, era askotako lan ekonomikoak egin ditugu, esaterako, kontabilitatearen jarraipena, ordainketak, aurrekontu zehatza eta urteko balantzea prestatzea eta jarraipena egitea batzar orokorrerako, aurrekontuaren eta diruzaintzaren hiru hilean behingo jarraipena edo GGKEen kuotak kobratzeko prozesuaren kudeaketa.

2011n zuzendaritzatik koordinatutako bi batzar orokor egin ditugu. Lehenengoan, Donostian, estatutuen aldaketa, Koordinakundearen eraldaketa prozesua eta karguen berritzea landu genituen, besteak beste. Bigarrena Gasteizen egin dugu eta gai bakar bati buruzkoa izan da: Koordinakundearen eraldaketa prozesua. Dena den, kargu berritzeak ere egin ziren.

Lanaren kudeaketari dagokionez, zuzendaritzak parte hartu du Arabako idazkaritza teknikoaren eta sareen laguntzaile lanpostua beteko duen pertsonaren hautaketa prozesuan. Gainera, aldizkako koordinaketa bilerak egin ditugu lantalde teknikoarekin.

Bestalde, Espainiako GGKEen Koordinakundearekiko lotura lanak egin ditugu eta erakunde horren gobernu batzordean lankidetza deszentralizatuaren ordezkari izan gara. Espainiako GGKEen Koordinakundearen gobernu batzordeko bileretara joan gara eta koordinakunde autonomikoen lantaldeetako bi hilean behingo bileretara ere bai. Horrez gain, bilera horien berri eman diegu Euskadiko GGKEen Koordinakundearen gobernu batzordeari eta erakundeko GGKE kideei. Bestalde, Espainiako GGKEen Koordinakundearen ohiko batzar orokorrean, GGKEen eta autonomi erkidegoen zuzendaritza eta lehendakaritzen topaketan eta Koordinakunde autonomikoen IX. topaketan (Bartzelona) parte hartu dugu.



# 3. Gure ekimenak

Marko instituzionalean, zuzendaritzatik Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Administrazio Publikoko Sailak Kolonbiako Giza Eskubideen Defendatzaileak aukeratzeko batzordean parte hartu dugu. Bilera bat izan genuen José Manuel Salinero Feijoo, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakaritzako idazkari nagusi eta presidenteordearekin eta Agentziako zuzendari den Marta Ares andrearekin.

Urtean zehar hainbat bilera egin ditugu Koordinakundean sartzea eskatu duten edo erakundea hobeto ezagutu nahi zuten GGKEekin. Horien artean aipatzekoak dira hauek: Derandein, Garabide, Farmamundi, Egoaizia eta FUNDESO.

Bestalde, zuzendaritzak Kalidadeak zuzenduriko lantalde batean parte hartu du Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Plan Zuzentzailearen ebaluaketa egiteko. Halaber, Hirugarren Sektorearen Behatokiarekin batera antolatutako Bizkaiko tamaina txikiko GGKEen errealitate eta perspektibei buruzko mintegiaren azken saioan parte hartu dugu. Hirugarren Sektorearen I. Urtekariaren aurkezpenera joan gara Koordinakundearen ordezkari bezala eta hirugarren sektoreko prestakuntza premiei buruz Estatu mailan egin den azterlan batean parte hartu dugu.




## Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

2011. urtean idazkaritza teknikoek egindako lanik garrantzitsuena GGKE kideak indartzea eta laguntzea izan da. Gainera, GGKEei eta partikularrei lagundu diegu Hegoaldeko herrialdeak bisitatzeko moduei buruzko etengabeko informazioa eskainiz eta informazio orokorragoa emanez ere bai lankidetzari, deialdiei, diru-laguntzei, lan eskaintzei, boluntariotzari, prestakuntzari eta material informatikoaren zein bibliografikoaren maileguei buruz. Hainbat jarduera egin ditugu ondoko arloak hobetzeko: ekonomiaren eta lan-poltsaren kudeaketa, material eta argitalpenen hedapena, dohaintzak bideratzea (10 Araban, 26 Bizkaian eta 15 Gipuzkoan) eta lurraldeetako lan-taldeak koordinatzea, besteak beste. GGKEen informazio bilketa ere koordinatu dugu Afrikako adarreko gosete aitorpenari eta antzeko gertakariei buruz.



# Gure ekimenak



Urtean zehar erakundeek aktiboki parte hartu dute Koordinakundean. Araban 24 erakundek hartu dute parte Koordinakundeko espazioren batean (lantaldeak, lurraldeko batzarrak...). Bizkaian 32 izan dira eta Gipuzkoan, berriz, 31 inguru.

Lurraldeka, Araban aipatzekoa da idazkaritza teknikoak eragin politikoko lantaldeari laguntzeko egindako lana, foru eta udal erakundeek lankidetzan egin dituzten murrizketen inguruan. Horrez gain, giza mobilizazio eta kanpainen lantaldeari ere lagundu diogu Pobreziaren aurkako Astean eta Desazkundea eta Eskubide sozialen aldeko plataforma bezalako kolektiboekiko harremanetan. Erdu eta Gazte Informaziorako Udal Bulegoarekin batera, bi hitzaldi informatibo prestatu ditugu; bata, Hegoaldera bidaiatzeko aukera desberdinei buruzkoa eta, bestea, Europako Boluntarioen Urtearen karietara antolatu dena, GGKEetan boluntario bezala lan egiteko aukerei buruzkoa. Bilerak egin ditugu lurraldeko erakundeak ordezkatzen dituzten pertsona berriei laguntzeko (FISC Cooperación y Desarrollo, Mundubat, Manuel Iradier Elkarte Afrikanista, Bizilur eta Alboan). Aurten ere espazioak utzi dizkiegu GGKE kideei beren materialak biltegiratu ditzaten Gasteizko Udalak mailegatu digun lokal batean eta 21 aldiz utzi dizkiegu materialak erakundeei. Bestalde, GGKEek aurreikusitako jarduerak biltzen dituen egutegi bat osatu dugu urte hasieran, plangintza koordinatu ahal izateko. 2011. urteko nobedade gisa, lurralde batzordeetan jaso da GGKEek Koordinakundean parte hartzeko duten konpromisoa, erakundeei parte-hartzeko hiru maila eskaini zaie gogoeta prozesu baten ondoren. Azkenik, aipatzekoa da egoitza Simone de Beavoir Elkartetxean



# Gure ekimenak

kokatuta dagoela eta beraz erakunde ugarik partekatzen duten espazio batean parte hartu dugula. Aurten aukera eman da ere Elkartetxe horretako erabilpen anitzeko aretoa erabiltzeko.

Bizkaian, idazkaritza teknikotik Barakaldoko elkartasun azokan parte hartu dugu eta baita ere boluntarioei eta ekintza solidarioari buruzko mahai-inguru batean. Horrez gain, besteak beste UPV/EHUrekin lan egin dugu, eta baita ere Bizkaiko hainbat herritako gazteei arreta emateko eremu desberdinekin, eta hala, harremanetan jarri ditugu GGKEekin, ikastaroetarako materiala eskaini diegu eta hitzaldiak edo erakusketak antolatu ditugu. Dokumentazio zentroan dauzkagun materialak katalogatzen jarraitu dugu: liburuak, dokumentuak, ikus-entzunezkoak, monografikoak, memoriak, txostenak, aldizkako argitalpenak, garapenerako hezkuntzako materialak... Funts dokumental hori GGKEen nahiz publiko orokorraren eskura dago eta gaur egun lankidetzaren esparruan sailkatutako 850 material inguru dauzka gordeta. Zentroaren erabilpena bultzatze aldera, 2011. urtetik hilero sartzen da Koordinakundearen buletin digitalean artxibo horrek eskuratutako ale berrien zerrenda.

Gipuzkoako idazkaritza etengabe egon da harremanetan Gipuzkoako gazte informazioko zerbitzuekin, zeintzuek informazio baliotsua eman baitigute Koordinakundearen boluntariotza txostena zabaltzeko. Bertan ere hedatu dugu txosten hori. Gainera, Deustuko Unibertsitateak Donostian duen campusean boluntariotzari buruzko mahai-inguru batean parte hartu dugu eta aktiboki lan egin dugu Mundu zabala, errealitate anitz sentsibilizazio jardunaldiaren bederatzigarren edizioko antolakuntzan. Koordinakundeak urtero antolatzen du ekitaldi hori Donostian eta kanpoko beste kolektibo batzuek ere parte hartu dute bertan, esaterako Mujeres del Mundo Unidas, SOS Arrazakeria, Zero Pobrezia Plataforma, bidezko merkataritza partzuergoa eta FIARE.

Aurten ere idazkaritza teknikook Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lagundu nahi al diozu Hegoaldeari? Nola parte hartu txostena eguneratu dugu. Garapenerako lankidetzarekiko interesa dutenei zuzendutako txosten bat da eta Koordinakundearen webean ere eskuratu daiteke. Txosten horretan aurki daitezke egoitzan edo herrialde pobretuetan boluntario lanean jarduteko dauden aukerak edota eskura daitekeen prestakuntza-eskaintza, eta baita ere arlo honetara profesionalki hurbildu nahi duten pertsonentzat bekak, praktikak eta programak.

Lurraldeetako batzarretarako deialdia egitea izan da idazkaritza teknikoen beste eginkizunetako bat, erakundeen lan



# 3. Gure ekimenak

koordinatua hobetzea helburu izanik. Araban 11 lurralde batzar eta ez-ohiko bi batzar egin dira eta Gipuzkoan 9, bi kasuetan hilean behin. Bizkaiko kasuan, berriz, bilerak hiru hilean behin egin dira eta, ondorioz, 4 topaketa antolatu dira guztira.

2011n aipatzekoa da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kide diren erakundeen prestakuntza premiak jaso eta sistematizatu ditugula. Idazkaritza teknikoetatik koordinatu ditugu eskaera guztiak eta hainbat prestakuntza-jarduera jarri ditugu martxan Koordinakundeko lan arloekin batera: Giza oinarria eta herritarren parte-hartzea tailerra (Donostia eta Gasteiz), Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizaziorako sormena eta berrikuntza ikastaroa (Gasteiz eta Bilbo), GGKE batek eragin politikoko estrategia bat diseinatzeko gakoak (Donostia), GGKEentzat garapenerako lankidetzan generoari buruzko prestakuntza saioa (Bilbo), Garapenerako lankidetzako eta hezkuntzako proiektuen ebaluazioa (Arrasate), eta abar.

Gainera, idazkaritza teknikoetan ahalegin handia egin dugu kide diren erakundeek garapenerako hezkuntza arloan eginiko jarduera eta material guztiak biltzeko, eduki horiekin katalogo hau osatu delarik:

Garapenerako hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako baliabideak; baloreetan trebatzeko aukerak Euskadin. 2012an CD batean editatuko dugun argitalpen horrek gizarte osoaren eskura jartzen ditu GGKEek dituzten materialak (bideoak, erakusketak, material didaktikoak, tailerrak...).

Beste alde batetik, batzuetan bilera informatiboak egin ditugu Koordinakundeari eta kide diren GGKEei lagundu nahi dieten edota Koordinakundean sartu nahi duten erakundeekin. Horixe egin dugu besteak beste erakunde hauekin: Moobolo Elkar eta Brigadas Internacionales de Paz Araban; Asociación de Amigos de Arizmendiarrieta Bizkaian eta SOS Arrazakeria, Mujeres del Mundo Unidas,





# 3. Gure ekimenak

Egoaizia, Hegolan, Haren Alde, Sociedad Vasca de Cuidados Paliativos, ONG Marianista eta Semilla de Mostaza erakundeekin Gipuzkoan. Beste kasu batzuetan, bilerak edo topaketak antolatu ditugu Euskadin bisitan zeuden Hegoaldeko erakundeekin, loturak estutzeko eta indarrak batzeko. Bizkaian aipatzekoak dira Fondo para la Paz (Mexiko) eta Personería de derechos humanos de Medellín (Kolonbia).

Gainera, idazkaritza teknikoetan partikular, elkarte, erakunde, kolektibo eta eskoletatik iritsi zaizkigun eskaera eta kontsultei erantzun diegu. 2011n Arabako ordezkaritzan 713 eskaera erantzun ditugu, Bizkaian 1.188 baino gehiago eta Gipuzkoan 816.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, posta elektronikoa da kontsultak egiteko gehien erabiltzen den bidea eta jarraian datoz telefonoa eta bisita pertsonalak:




Koordinakundeko kide diren GGKEak dira informazioa lortzeko Koordinakundera gehien jotzen dutenak. Atzetik dituzte pertsona partikularrak eta kanpoko erakundeak edo kolektiboak, grafiko honetan ikus daitekeen bezala.



# 3. Gure ekimenak

Informazio eskatzaileak sexuka bereiziz gero, ondoriozta dezakegu kontsulta gehienak emakumeek eginak direla, jarraian ageri den bezala:



- Emakumeak: %63
- Gizonak: %30
- Eman ezin den informazioa: %7

Koordinakundea lankidetzaren esparruko erreferente bezala ikusten duten pertsonek eskaintzen diren zerbitzuei buruzko informazioa eskatu dute gehienbat. Ondoren, lankidetzaren esparruko gai espezifikoei buruzko aholkularitza eskatzen da gehien eta hirugarren tokian koordinakundeko kide ez diren kolektiboei buruzko informazioa, grafiko honetan egiaztatu daitekeen bezala:



- Zerbitzuak (dohaintzak, lan poltsa, baliabideen mailegua...): %44
- Aholkularitza eta informazioa (kontaktuak, diru-laguntzen deialdiak, prestakuntza, lankidetzak, tramite administratiboak...): %22
- Kanpoko erakunde edo kolektiboei buruzko informazioa: %14
- Boluntariotza eta esperientziak Hegoaldean: %10
- Koordinakundeari eta kide diren GGKEei buruzko informazioa: %10

Koordinakundeak euskararen erabilera bultzatzeko duen apustua dela eta Gipuzkoako eta Arabako ordezkaritzek Guk zerbitzua euskaraz eta Euskararen bidean mailei dagozkien Bai Euskarari ziurtagiriak dauzkate hurrenez hurren.

Amaitzeko, nabarmentzekoa da Gipuzkoan eta Araban lan handia egin dugula, elkar hobeto ezagutzeko eta GGKEen arteko lankidetza sustatzeko eskualde nahiz kuadriletan gauzatzen diren jardueretan. Horrela bada, GGKEen presentzia indartzeko lan espezifikoa egin dugu bi lurraldeetan, hiriburuetan zentralizatu gabe. Besteak beste, lankidetzaren esparruan diharduten erakundeekiko harremanak sortu ditugu, Hegoaldeko errealitateei buruzko sentsibilizazio ekintzak egin ditugu eta jarduerak koordinatu ditugu. Aipatzekoak dira ondokoak:

- Araban, sarean lan egiteko dokumentua eguneratu eta zabaldu dugu, zeinak informazio anitza jasotzen duten hainbat atal baitauzka: Arabako koadriletako kontaktu instituzional garrantzitsuenen datuak, sentsibilizazio jarduerak garatzeko espazioak eta horietako eragileak, lurraldeko GGKEek egiten duten lana eta jardueren berri emateko hedabideak, besteak beste.





3.

# Gure ekimenak

Amurrion, Zero Pobrezia kanpainan parte hartu dugu Azoka solidarioaren aurtengo edizioan eta Laudion, Pobreziaren aurkako Astearen karietara, Azoka solidarioa antolatzen laguntzeaz gain, tailerrak egin ditugu ikastetxeetan. Era berean, kanpaina hori probintziako hainbat komunikabidetan hedatu dugu elkarrizketen edo artikuluen bidez. Jarduera horiek denek giza mobilizazio eta kanpainak taldearen laguntza izan dute, eta aldi berean koordinazio, gogoeta eta elkarlan espazioak sortu dira. Azkenik, Dulantzin Kultura arteko astea antolatzen lagundu dugu hainbat jardueratan parte hartuz, hala nola truke merkatuan edo merkatu solidarioan, eta hitzaldi bat ere eman dugu. Horrez gain, GGKEek kanpoko hainbat jardueratan izan duten parte hartzea bultzatu dugu, adibidez Zuiako emakume kooperanteen topaketan edo Zuiako Koadrilan egin zen merkatu solidarioan.

- Gipuzkoan nabarmentzekoa da probintziako GGKEekin koordinatuta lan egin dugula jarduerak lurralde osoan bultzatzeko. Etengabe lan egin dugu kanpora begira, kalean jarduerak egiteko plataformetan edo sentsibilizazio ekintzetan parte hartuz, baina aldi berean barne prestakuntzako prozesu interesgarriak eta eztabaidarako espazioak jarri ditugu martxan.

GGKEen arteko koordinazioa sustatzeari dagokionez, jarduerarik aipagarrienetako bat langile teknikoekin eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio arloko arduradunekin egindako topaketa izan da; Donostian antolatu genuen, agendak partekatu eta koordinatzeko asmoz eta aldi berean erronkak elkarrekin konpontzen saiatzeko. Bestalde, eragin politikoko lantaldeari lagundu diogu bere ekintzetan eta eguneroko zereginetan.

Azpimarratzekoa da Zero Pobrezia kanpainak bost plataforma dauzkala martxan (Eibar, Debagoiena, Irun, Donostia eta Zarauzko elkartasun taldea). 59 erakunde inguru lanean ari dira helburu berbera lortzeko. Era berean, Zero Pobrezia kanpainaren materiala banatu dugu Gipuzkoa osoan eta horretarako giza mobilizazio eta kanpainak taldearen laguntza izan dugu. Donostiako Zero Pobrezia Plataformaren nobedadeetako bat da espazio berrietan parte hartzen hasi dela, adibidez Emakumearen Nazioarteko Egunean. Nabarmendu nahi dugu baita ere lan handia egin dela Donostiako Zero Pobrezia Plataforman eginiko prestakuntza ikastaroak prestatzeko: Posible da desazkundea lankidetzan aplikatzea?... •



# Koordinakundeko kideak[1]

## Gobernu batzordea

**Lehendakaritza:** Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. **Lehendakariordetza:** Álvaro Martín, Bakerako Lankidetza Batzarra. **Diruzaintza:** María del Mar Magallón, ALBOAN; Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. **Araba ordezkaia:** Inmaculada Tazo, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza. **Bizkaiko ordezkaria:** Jaime Bernar, Zabalketa; Mila Domínguez, ADECO. **Gipuzkoako ordezkaria:** Mertxe Digón, Intered Euskal Herria. **Batzordekidea:** Ana Mokoroa, Elan Euskadi; Fernando Vaquerizo, Mundubat. **Batzordekidea:** Fran Izquierdo, Elizbarrutietako Misioak; Eduardo García, medicusmundi álava/araba. **Batzordekidea:** Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

## Lan-taldeak

### Eragin politikoa

#### Euskadi

Nerea Basterra, Intermón Oxfam. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC Cooperación y Desarrollo. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Amaia Iguarán, Ayuda Mas. Álvaro Martín, Bakerako Lankidetza Batzarra. Nacho Eguizabal eta Alicia Alemán, ALBOAN. Belén Citoler, Mundubat. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Jaione San Sebastián, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Mónica Hernando, Unesco Etxea. Javier Sierra, FUNDESO. Eva Silván, Save the Children.

#### Araba

Luis Royero, Manuel Iradier Elkarte Afrikanista. Itziar Marquinez eta Miryam Berganza, medicusmundi álava/araba. Alberto Cereijo, Setem Hego Haizea. Ainhoa Oceja, Save the Children.

#### Bizkaia

Alicia Alemán, ALBOAN. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. María Arrieta, Gazteak eta Garapena. Regina Zalbidea, FISC Cooperación y Desarrollo. Laura Iruretagoyena, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Belén Citoler, Mundubat. Jaime Bernar, Zabalketa. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Amaia Iguarán, Ayuda Mas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Jaione San Sebastián, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Mónica Hernando, Unesco Etxea. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia. Javier Sierra, FUNDESO.

#### Gipuzkoa

Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Fernando Vaquerizo, Mundubat. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Gonzalo Aranguren, PROSALUS.

### Giza mobilizazioa eta kanpainak

#### Araba

Ananda Abaigar, Adsis Fundazioa. Kepa Torrijos, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Idoia Pérez de Unzueta eta Ayem Oskoz, Mundubat. Idoia Landaluce, SEADen Lagunen Elkartea Araba. Laura Lorenzo, Munduko Landagunea. Francisco Izquierdo, Elizbarrutietako Misioak. Eva Silván, Save the Children. Beatriz Asenjo, Serso San Viator de Euskalherria/Tierra de Hombres-Gizakien Lurra/Save the Children. Lut Vansant, Setem Hego Haizea. Olga Serrano, Gizakien Lurra.

Pobreziaren aurkako Astean honako hauek bat egin dute aktiboki: Marian Uriarte, medicusmundi álava/araba; Yolanda Barco, Haurralde Fundazioa eta Deyanira Rodríguez, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna.

#### Bizkaia

María Lezáun, ALBOAN. Raquel Calvo, Bateginez. Álvaro Peña eta Nerea Freijo, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Paciencia Okon, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Toño Sanda eta Sandra Fernández, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Sofía Marroquín, Intermón Oxfam. Teresa Reyzabal, Munduko Medikuak. Maite Ezquerro, Mugarik Gabe. Jorge Lago eta Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna.

[1] 2011aren amaieran.



# 4. Koordinakundeko kideak



### Gipuzkoa

Maitane Igartua, MSH Mundu Solidarioa Helburu. Ane García, Behar Bidasoa. Maider Gorriti eta Raquel Fernández, Cáritas Gipuzkoa. Ana Mokoroa, Elan Euskadi. Lourdes Guruceta, FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa Mariaren Lagundia. Edurne Irazusta, Haurralde Fundazioa. Arantza Garbizu, medicusmundi gipuzkoa. Koté Urbieta, Mugen Gainetik. Laura Laborra, PROCLADE YANAPAY. Josean Etxeberria, PROSALUS. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Elena González, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI).

Gipuzkoan dauden Zero Pobrezia 5 plataformetan parte hartzen duten erakundeak ez dira hemen sartzen.

Mundu zabala, errealitate anitz ekimenaren antolaketan honako hauek parte hartu dute ere: Aloña Braceras, ALBOAN; Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak; Ainitze Zabala, Intered Euskal Herria; David Pinilla, Bakea eta Elkartasuna Euskadi; Idoia Azpilicueta, PROYDE-PROEGA; Nerea Agirre, Rokpa Euskadi; Isabel Portillo, SODEPAZ Euskadi eta Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa.

## Generoa

Amaia Iguarán, Ayuda Mas. Joana López de Guereñu, Bakea eta Duintasuna. Beatriz de Lucas, Mundubat. Isabel Uría, SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia. María Bravo, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Domínguez, ADECO. Marian Sanz, medicusmundi bizkaia. Clara Murguialday boluntarioa izan da taldean.

## Komunikazioa

Deyanira Rodríguez, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. Ángel Ipiña, Serso San Viator de Euskalherria. Alfonso Roncero, Gizakien Lurra.

## Irratia

Marilo Ruiz de Galarreta eta Idoia Landaluce, SEADen Lagunen Elkartea Araba. Olga Serrano, Gizakien Lurra. Arantza Moya eta Arantza Villar, Mundubat.

## Jokabide kodearen jarraipen batzordea

Itziar Hernández, Lara González, Dominic Wyatt eta Ana María Arriola.

# Erakundeetan partaidetza

## Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Nacho Eguizabal, ALBOAN. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Almudena Martín, Euskadiko Elkarbidea. Josu Perales, Mundubat. Nerea Basterra, Intermón Oxfam. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. María Viadero, Mugarik Gabe. Koldo Muro, Cáritas Gipuzkoa.

## Bilboko Lankidetzako Batzordea

María Arrieta, Gazteak eta Garapena. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia. Belen Citoler, Mundubat.

## Vitoria-Gasteizko Garapen Lankidetzarako Batzordea

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, Euskadiko GGKEen Koordinakundea.

## Donostiako Udalako Lankidetzarako Batzordea

Fernando Vaquerizo, Mundubat.

# Talde teknikoa

Natxo Ribechini, Idazkaritza teknikoaren zuzendaritza. Aurora Hermosilla, Olatz Domínguez eta Itziar Lecanda (urtearen sasoi ezberdinetan), Arabako idazkaritza teknikoa. Usune Zuazo, Bizkaiko idazkaritza teknikoa. Erika Erkizia eta Julia Laborra, Gipuzkoako idazkaritza teknikoa. Natalia Rodríguez, Eragin politikoko arduraduna. Idoia Aldama, Giza mobilizazioa eta kanpainak arduraduna. Silvia de Gregorio, Genero arduraduna. Jon González, Komunikazio arduraduna.



# 4. Koordinakundeko kideak

## GGKEak

Acción Verapaz Euskadi
Acnur Euskal Batzordea
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Amigos del Tercer Mundo
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetza Batzarra
Bateginez
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutiko Cáritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Compartir
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Misioak
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi-Cuba
Euskadiko Elkarbidea
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
FISC Cooperación y Desarrollo
FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa Mariaren Lagundia
FUNDESO Garapen Iraunkorreko Fundazioa
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gizakien Lurra
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI)
Intered Euskal Herria
Intermón Oxfam
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Izan Elkartea
Justicia y Paz
Kainabera
Leonekin
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkarte Afrikanista
medicusmundi álava/araba
medicusmundi bizkaia
medicusmundi gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektoak
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugarik Gabeko Hezkuntza
Mugen Gainetik
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikuak
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
Oskar Romero Solidaritza
PROCLADE YANAPAY
PROSALUS
PROYDE PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskalherria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi
Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna
SOLIVE Solidaridad Vedruna
SOTERMUN
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
Zabalketa
Zubiak Eginez

## Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaiguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...

# 5. Kontu argiak

| SARRERAK | BURUTUA (€) | % |
|---|---|---|
| Kuotak | 37.639 | 9 |
| Eusko Jaurlaritza | 201.000 | 46 |
| Arabako Foru Aldundia | 24.990 | 6 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 34.000 | 8 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 33.600 | 8 |
| Bilboko Udala | 30.000 | 7 |
| Donostiako Udala | 31.000 | 7 |
| Vitoria-Gasteizko Udala | 23.100 | 5 |
| Plataforma 2015 | 6.000 | 1 |
| Jarduerengatik sarrerak | 8.061 | 2 |
| Aparteko sarrerak | 9.000 | 2 |
| **GUZTIRA** | **438.390** | **100** |

| GASTUAK | BURUTUA (€) | % |
|---|---|---|
| Bulegoko materiala | 5.688 | 1 |
| Langileak | 332.540 | 76 |
| Dietak eta garraioak | 12.945 | 3 |
| Kontratazioak | 56.079 | 13 |
| Funtzionamendua | 31.118 | 7 |
| **GUZTIRA** | **438.371** | **100** |

| EMAITZA | 19 |
|---|---|










EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI




**Araba**

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
**01001 Vitoria-Gasteiz**

Tel.: 945 28 07 45 • Faxa: 945 28 07 45
araba@ongdeuskadi.org

**Bizkaia**

Urkixo Galeriak
Urkixo Zumarkalea 30, 8. bulegoa
**48010 Bilbo**

Tel.: 94 415 03 00 • Faxa: 94 415 03 00
bizkaia@ongdeuskadi.org

**Gipuzkoa**

Pasajes San Pedro Etorbidea 13, atzealde
**20017 Donostia**

Tel.: 943 46 35 26 • Faxa: 943 46 35 26
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

coordinadora@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org



Laguntzailea:

GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO